

## Liburutegiko Erabilera eta Arauak

*Liburutegi / Mediateka honako ekintza hauetarako erabil dezakegu:*

### IKASTEKO

*Gogoratu ikasleko isiltasuna behar dela.*

### IRAKURTZEKO.

*Liburuak, egunkariak (liburutegian bertan aurkituko duzu informazioa horretaz), aldizkariak, etab. Liburu eta aldizkari berriak erosteko zuen kolaborazioa nahi dugu. Beraz, kontuan hartuko ditugu zuen iradokizunak.*



### ALDIZKARIAK

*Hileko aldizkariak (edo azken aleak) erakustokian jarriko dira. Hauek liburutegian bakarrik irakur daitezke, ezin dira bertatik atera. Besteak (zaharrak) apaletan jarriko dira eta hauek mailega daitezke liburuekin egiten den bezala. Apal bakoitzak aldizkariaren izena edo gaiarekin izendaturik dago, beraz, irakurri ondoren itzultzerakoan errespetatu bere tokia.*

### INFORMAZIOA ESKURATZEKO

*Liburuak, entziklopediak edo ordenagailuen bidez. Erabilitako materiala utzi dagokion lekuan, ahal baldin baduzu; bestela, utzi zaindariaren mahai gainean, honek gordetzeko.*

### MAILEGUAK HARTZEKO

*Materialen bat (bideoak, liburuak ) etxera eramateko hurrengo pauso hauek eman behar dituzu:*

*1.- Materiala aukeratu ondoren erakutsi irakasle-zaindariari mailegua bideratzeko.*

*2.- Aldi berean hiru material, asko jota, har dezakezu.*

*3.- Liburuak hamabost egunetarako dira.*

*Epe honen amaieran, behar izanez gero, mailegua luzatzea eska dezakezu.*

*4.- Bideoak eta DVDak asteburuetan bakarrik har ditzakezu etxera eramateko.*